



BIZITZA OSOA SUKALDEARI ESKAINIA

Alex Mujika leitzarrek txiki-txikitatik ezagutu du sukaldearen mundua; 'Reciclaje y alta cocina' liburua argitaratu du »7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-02-24

VIURTEA 1.370.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

«Jende ugari» bildu du 'Ahoz Aho' jaialdiak Tolosako kultur guneetan

AZKEN EGUNA Asvineneak antolatu duen jaialdiaren azken eguna izango da gaur, haur eta helduentzako saioekin

KONTALARIA Josemari Carrereren esanetan, «haurrak kontatzen duzunaren zergatia pentsatu behar du»⁴



Josemari Carrere kontalariak Bonberenean eskaini zuen emanaldia, bertan bildu ziren haurren gozamenerako; gaur amaituko dute jaialdia. ASIER IMAZ

Aurrerako pilotariak amaitu dute Nafar Jokoen 2. itzulia

LEITZA Dagoeneko bigarren itzuliko neurketa guztiak jokatu dituzte pilotariak; hala ere, asteartean jakingo dute sailkatuko diren 5

Futbol Indoor Txapelketaren neurketa berdinketan amaitu da

TOLOSA Real eta Real Madril taldeko jokalaririk ohiek elkarren aurka jokatu zuten herenegun Usabalen 2

Bidaia Agentzia
bidaide sercom grupo

BADATOR ASTE SANTUA!!

**ZATOK ZURE
ERRESERBA EGITERA !!!!**

Erniohea, 6 behea • VILLABONA • Tel.: 943 69 26 93

Boto kontari



» Uzturretik

Patziku Perurena

Hasia dizute zalaparta. Edo hobe: ez dizute sekula bukatzen. Nik paso, ahal dela. Nahita ere ez baita aisa sailhesten. Askoz duinago eta zehatzago ematen dut nik nere. Eguneroko botoa, alegia. Edo tolosaldeko HITZ honetan ere "bozka" esan beharko genuke? Ez nere bototik.

Goiztar filologoari: birau kontuak Fontesen atera ziren aurrena 2005ean. Ikus 444 orriari: "Irakikan, Txoro Irakikan". Hori ez zela posible esan nion, Goizuetan inori aditu izatea. Bai ordea "hauxe irakikan", hain juxtu, "anima salbota" bezalatsu, aurrez esandako zakarkeria lehuntzeko ondotik irasten den esanera. Esan nahi baitu: "hauxe iradokirikan", Goizuetan iradoki aditza gaurdaino ahoz gorde dela erakutsiz.

Orain Birauak atera dira, ez Mujikaren irauki eta ez Patzikuren iradoki. Hori bai: "animasalbota" ordez "anima salduta". Halatsu utzi nautse, bai, ni ere.

Tolosar musikariari: udako hamabostaldirako gidoia behar zuela. Egin nion nola edo hala. Ja ze katxea erabiltzen nuen? Nik ez nuela katxerik, besteen ariora gizalegez portatzearekin aski zuela. Ezetz ezetz, esateko, bazela nahiko dirua. Nik lehengoa berriz ere. Koinatu tolosar bati aipatu nion gero. Buff, aita bezalakoa bada, kobratuak daukak sos ederrik!... Gero hor ibili zuten nere izena, gehixko eta guzi. Gaur arte.

Euskal prentsari: Lau idazle ginela: Elorriaga, Meabe, Zamora eta ni. Kasik egun osoa bota nuen Goizuetan, larre etakale, Leitzatik joana. Oroitzen naiz nola aritu nintzen zubiaz, zubi haundiaz, munduan zubietako asko izanarren bakarra den goizubietaz... Tutik ere ez gero. Eta hauxe eguneko soldata: esker motxa, eta kopia bidaliko zidatela edo... Betikoa. Hurrengoa? Besterik Gabe: koloreen gainean. Beste hainbestetsu. Eta zenbat aldiz ipini ote dute antean, nola irratiz ala telebistaz!... Eta kudai gero pentsa, haiek ez di-

renik niri mesede egiten ari direnak, eta ez alderantziz!... Jendeak ere halaxe uste dizu, batez ere espa puxka didanak: honatik aberasten eta famatzen ari naizela. Jakinen balu gaixoak!...

Arantxa Alegikoari: banekuan gogoa eskertzeko, hire atzenekoa. Sarrera zeinen ederki eman hunan. Bi kantak zeinen ederki aukeratu. Galderak zeinen dotore txirikordatu, eta nik zeinen trakets erantzun. Zenbat partare hunkigarri oroitzen hintzenan. Gogoz eta bihotzez egindako lana, bai. Ezin ninan sinistu Iturbe maitea. Eta gero gainera, kopia eskatu eta, baita bidali ere. Nere bihotza ez zegonan lasa, hiri eta talde osoari esker apurrok aitortu gabe.

Botoak: Kontuak atera eta, lautik bat, esanen duzu. Baina ai, lekua dela eta gorde ditudan jakin bazez!... Bai, Jito Herri negarti gara batez ere, geure gogoz eta bihotzez ez duguna etsaiei eske beti. Bai, Euskal Herri izateko fintasuna falta zaigu izugarri. Eta ez dezala inorkuste, ezker ize-neko hori, gaitz honetatik librea denik. Ederki probatua bainaz, eta eguneroko probatzen ari naizena.




Berdinketa, indoor txapelketan

TOLOSA Herenegun iluntzean, Futbol Indoor txapelketa jokatu zuten Usabal kiroldegia Realeko eta Real Madrileko jokalariek. Jende andana hurbildu zen ikuskizunaz gozatzera eta harmailak leporaino bete ziren. Neurketaren amaieran berdinketa izan zen markagailuan, hamai-kana golekin. ASIERIMAZ

K Komikia

Gorka Salaberria



Pasa den hilaren 20an, asteazkenean, *Egunkaria* itxi zutela bost urte bete ziren. Eskualdean eta Euskal Herria osoan elkartasun elkarretaratzeak egin zituzten, auzia bertan behera uzteko exijitzeko eta duela bost urte euskal gizarteak eman zuen erantzuna bizirik jarraitzen duela azaltzeko; eskualdean egoera gertutik bizitu zuten hiru euskaltzalek iritzia eman dute, 5 urte eta gero.

Orain bost urte



» Iritzia

Joxemari Iturralde
Idazlea

Bost urte bete dira aste honetan "*Egunkaria*" itxi zutela eta arazoak ez dira desagertu tamente. Zuzendari izan zen Martxelot Otamendik garbi asko

adierazi du zer gertatu zen orduan: Gure delitu bakarra euskarazko egunkari bat argitaratzea izan zen. Hori dela eta, Madrilen erabaki zuten egunkari hori itxi egin behar zela eta bertako arduradunak eta langileak zigortu egingo zituztela.

Hemengo jendeak berehalaxe ulertu zuen gertatutakoaren garrantziaz eta orduan bertan hasi ziren protestak. Donostiako manifestaldian hartan milaka eta milaka pertsona bildu ginen garbi erakusteko zer nolako injustizia bete zuten Madrilan. Orain, eta esan bezala, bost urte pasa dira

eta arazoak ez da konpondu. Egia da jendeak berehalaxe erreazionatu zuela eta badugula, zorionez, beste euskal egunkari bat (Berria), baina garai hartako arazoak bere horretan dirau eta zenbait pertsona oraindik ere arriskuan daude eta, gauzak ez badira dezentatzen, kartzelarako bidean izan daitezke laster batean.

Umberto Eco pentsalari eta idazle ospetsuak idatzi du liburubatean (*Karramarroaren pausoa*) azken hamarkada hauetan historiari atzeraka egin duela etengabe. Hau da, politikoki, so-

ziazki, kulturaliki gizarte atzerakadoala, karramarroak pausok atzeraka egin dituen modura, eta gure artean ere garbi aski antzeman daiteke horrelakorik. Begi bistakoa da gaur egun hemen nozitzen dugun justizia oso kaxkarra dela, gaur egun hemen dugun demokrazia kalitate gutxiakoa, oso maila baxukoa dela... eta ez dela ezer gertatzen konpontze aldera.

Ematen du ezin dela ezer egin egoera penagarri honen aurka. Egunkari bat ixtea, bertako arduradunak eta langileak zigorpean edukitzea, bat-batean eta inolako probarik erakutsi gabe ez da inolaz ere demokrazia osasuntsu baten seinale.

Zer egin? Elkartasuna eta la-

guntza dira behar-beharrezkoak. Ez dakit bost urte hauetan partidu politikoek behar beste egin duten egoera penagarri honi buelta emateko, eta egin badute ere - zalantza ditut - garbi dago ez dutela ezer lortu. Erantzuna kaleko jende arruntarengandik datorke, kalean, lanean, tabernetan, familia giroan... solidaritate eta protesta giroa sortu beharko litzateke, Donostiako manifestazio handi hartan egin zen bezalaxe.

Madrilako jendeak jakin behar du gu hemen ez gaudela prest demokrazian eta justizia mailan atzeraka joateko, ez ditugula beraien karramarro pausok maite, ez dugula atzera egin nahi.

'Egunkaria' libre gizarte libre batean



» Iritzia

Garbiñe Biurrun
Epailea

Orain bost urte epaile batek *Egunkaria* ixtea erabaki zuenena, hiritar askok gure harridura adierazi genuen. Ez zegoen ulertzetik zergatik inposatzen

zen horrelako kautela-neurria hedabide baten aurka eta, beraz, denok genekien denboraren poderioz behin betiko neurria bihurtuko zela. Hau dena sahiesgarria zen: ikerketak aurrera egin zuten bitartean, epaileak enpresa horretan administrazio judizial bat izendatzea besterik ez zen behar, informazioa emateko eta jasotzeko funtsezko eskubiak bermatuz.

Baina ez zuten horrelakorik nahi izan.

Atxilotutakoek salatutako tortura larriak ere ez zituzten ikertu nahi izan.

Fiskaltzak delituri ikusten ez duen sumarioan herri akusazioak ETArekin kolaborazioa leporatzen die auzipetuei eta, bide batez, Euskalgintza osoa kriminalizatzen da, euskara sustatzea ETArekin helburuekin bat egitea dela esanez.

Egunkaria sumarioak itzalguneta eta salbuespeneko erabaki gehiegi ditu, baina oraindik aukera ezin hobea eskeintzen dio Zuzenbide Estatuari: hiritar gutziona funtsezko eskubideen eta berme penal guztiak babestea. Orain arte, kasu honetan gertatu ez dena.

Ezin izan dute...

» Iritzia

Noelia Lataburu
HITZAren zuzendaria

Ondo asko gogoratzen dut egun hura. Nire lagun Txominere gogoratuko du. Ordu arte gure bizitzako abentura izan behar zuena bizitzera gindoazen, Italian. Materan geunden, herri zoragarri batean. Hotz handia eginen zuela ere oroitzen dut baina gozo gindoazen autobusean. Orduntxe SMS mezu bat jaso genuen: "*Egunkaria* itxi dute"... Orduntxe bai, hotzikara batek hartu gintuen autobusean gindoazen hiru eskalduni. «Ez da posible!», «Nola izan da, ba?»... Hain urrun eta hain gertu sentitu genuen guztia... Malkoak ere ageri ziren Ekaitzen aurpegian. «Ma che cosa?» zioten gurekin zeudenek.

Inork ezin zuen ulertu euskalgintzaren aurkako eraso horren eragina guregan. «Normaltzat» jo zuten gure lagunek (italiarrek, espainiarrek...). Handik bi egunetara ere makromanifestazioaren oihartzuna guregana heldu zen.

Gure gorputza ez zegoen Donostian, baina bai gure bihotzak.

Beldur uneak bizitu genituen. «Eta orain zer gertatuko da?»... Ezin izan zutela; ezin izan zuten euskaltzaleen erantzunarekin, ezin izan zuten protestekin, ezin izan zuten aldarrikapenekin, ezin izan zuten.

Orain, bost urte beranduago, ezin izan dute euskal gizarteak berriz ere eman duen erantzunarekin. Eta garai horretan euskaraz bizitzen saiatu eta euskararen erabilerearen normalizazioan lanean zeudenekin (eta jarraitzen dutenekin) ere ezin izan dute. Zein da euren delitua? Martxelot Otamendi *Egunkaria*ren zuzendari ohiak egunkari honetan esan duen bezalaxe, «euskarazko egunkari bat egitea izan da gure delitua». Hori da guztion delitua, euskara maitatzea.

Jakin dezatela, auzi honetan euskaltzale guztiak garelako epaituak, euskalgintzaren alde lanean dauden (gauden) guztiak epaitutze (gaituzte). 5 urte beranduago, elkartasunak bero jarraitzen du, baita oroimenak ere...

Zaku bete sentimendu



» Iritzia

Arantxa Iturbe
Kazetaria eta idazlea

Garun batzuk gertakizunak gogoan hartzekoak dira. Datuak eta kopuruak iltzatuta gertatzen zaizkie eta denborak ez dizkie gordetakoak lausotzen. Beste garun batzuk, aldiz, une historikoak bizitzeko ari diren sententzia betirako gogoan izango du-

tela uste izan arren, gerora ez dute sentimentua besterik gordetzen. Eta orain bost urteko egun haietakoak asko dira. Minaren oroitzapena ezin litekeela gorde esaten dute adituek; ez lituzkeela bizitzen utziko, oroitzak min egingo lituzkeelako. Ba, horrelako zerbait. Eta adituen ustearen kontra sentimentuak biziz.

Zaku berean lehendabiziko unetik sinesgaiztasuna, ezintasuna, ezin ezer eginga eta nahia, amorrua, haserre, bainazerrarioa eta gero, lehendabiziko unearren errepikapena. Zaku berean, ordea, *Egunkaria* ez baina egunkaria ateratzeko gai izan diren ahalmen miresgarria.

Horixe du ona oroitzapenak

sentimentutan gordetzeak: datuek, zenbakiek, kopuruek eta gertakizunen zerrendek esaten duenaren kontra aurki litekeela zaku berean pozerako aitzakia.

@ Eztabaida. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK

hainbat eztabaida proposatzen ditu bere webgunean. Esaterako, hauxe bera topa ditzakete irakurleek eztabaida atalean sartuz gero: «Zenbateraino hartzen dute kontuan Udalek herritarren parte-hartzea udal aurrekontuak egiteko garaian?». Egin klik gure webgunean eta eman zure iritzia gai honi buruz eta nahi duzunari buruz.

www.tolosaldekohitza.info

DISEINATZAILEA

Donostia aldeko publizitate eta marketin enpresa batek diseinatzaile bat behar du.

Erreferentzia: 2008 IR-DP

Esakatzen da:

- Diseinuaren esperientzia izatea.
- Diseinu programak menperatzea (Freehand, Photoshop, Quark...).
- Publizitate produktuen ekoizpenearen esperientzia izatea.
- Harremanetarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

Eskaizten da:

- Urte bateko kontratua (luzatzeko aukera).
- Egun erdiko kontratua (goizez edo arratsaldean aukeratu).
- Lanean berehalaxe hastea.

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, martxoaren 9a baino lehen.

'Ahoz-Aho' jaialdiaren barneko azken emanaldiak gaur

Tolosa » Haurrentzat eta helduentzat ekitaldi ezberdinak antolatatu dituzte gaurko Asvineneakoek.

ASIER IMAZ

Asvineneak martxan duen *Ahoz-Aho* jaialdia aurrera doa eta hitza protagonista bezala hartuta, kontalariak, antzezleak, ametslariak, titiriteroak, pailazoak, olerkariak, esatariak, ... ikusteko aukera dago

egun hauetan Tolosako hainbat leku ezberdinetan.

Ahoz-Aho herenegun hasi zen baina ekitaldirik gehienak atzo egin ziren. Hala eta guztiz ere, azken eguna izan arren gaurkoa, 16:00etatik aurrera bost emanaldi ezberdin ikusteko aukera egongo da Tolosako hainbat puntutan.

Haurrentzat eta helduentzat

Helduentzat ez ezik, haurrentzat ere antolatatu dituzte emanaldiak Asvineneakoek. Atzokoan, txiki- nek Josemari Carrere pasaitarra

» EGITARAUA

Gaur

- **12:00.** Kontu-Kantoi haurrentzat Bonberonean.
- **16:00.** Kontu-Kantoi Tolosako Kultur Etxean. Euskaraz izango da ekitaldia.
- **17:00.** Fabiana Costa eta Bertrand N'Zoutani Sanblaspiuko Auzo Elkartean.
- **18:30.** Michèle Nguyen eta Valenti Piñot San Esteban Auzo Elkartean.
- **20:00.** Amaro Auzo-Etxean Ana Esclapez eta El Sabalero arituko dira.

ikusi eta entzuteko aukera izan zuten 12:00etan Bonberonean eskaini zuen emanaldian. Gaur ere ordu eta leku berean, haurreko Kontu-Kantoiaren emanaldia daukate euskaraz.

Helduentzako egitaraua 16:00etatik aurrera jarriko da martxan Tolosako Kultur Etxean.



Josemari Carrere kontalaria atzo Bonberoneko zelaian. A. IMAZ

«Haurrak zergatia pentsatu behar du»

JOSEMARI CARRERE » Kontalaria

Kultura » Haurrak eta gurasoak izan zituen entzule bezala goizean, arratsaldean helduentzat eskaini zuen saioa.

A. IMAZ

Bonberonean 12:00etan zuen hitzordua haurrekin, 16:00etan Kultur Etxean helduekin eta bi emanaldien tartean galderak erantzuten aritu zen Josemari Carrere (Pasai San Juan, 1963) atzokoan.

Zer iruditzen 'Ahoz-Aho'?

Horrelako jaialdi asko egiten dira eta interesagarriena jendeak ipuin kontalari eta estilo ezberdinak ikustea da. Beste lekuetakoak eta jende oso ona ikusteko aukera bi-



A. IMAZ

kaina da. Horrelako jaialdiekin arazoa berriz jarraipena izaten da, urtean saio gehiago ez baldin badira egiten, ia anekdota batean gertatzen da.

Haurrak goizean eta helduak arratsaldean.

Umeekin hitz egitea edo helduekin hitz egitea ez da berdina. Ipuin-ekin gauza bera gertatzen da.

Haurrekin arazoa urte ezberdinetakoak batera jartzen direnean sortzen da, hori borrokatu behar-ko litzateke guraso, antolatzaile eta abarrekin.

Begi asko egon dira goizean zuri begira.

Goizeko saioan urte ezberdinetako haurrak elkartu dira eta aukeratu edo beste hau, jakiten baita haur honi hori gustatuko zaion bezala, bestea aspertu edo galdu egingo dela.

Gazi puntuko historiak kontatu dituzu?

Nik uste dut haurrei norberak berari gustatzen zaizkion historiak kontatu behar dizkiela, adina kontutan hartuta beti ere. Milaka ipuin daude eta asko eta asko bapatean

amaitzen dira. Bertsio batean otsoak Txanagorritxu jaten du eta puntu, amaitu da ipuina. Ipuinen mundua gaizki estandarizatu dela uste dut nik. Amaiera polita, neska txepela, etab. Zuk gauzak zure ikuspegitik kontatu behar dituzu eta interesagarria da haurrak berak pentsatzea gauzetan. Bi gehi bi lau da eta puntu. Ez, haurrak hori zergatik den pentsatu behar du. Bakoitzak bere baloreak ditu eta nik ipuin bat kontatzen dudanean nire baloreak ipuin horretan joango dira baina ez moraleja bat erakasteko asmoz. Haurrei gustatuko zaie hau edo hori, baina beraiek pentsatu behar dute.

Zer da kontalaria?

Kontalariak istorioak kontatzen ditu. Hortik aurrera dena da posible. Ez zaude testu bati lotua, istorio bati baizik. Testua gero ateratzen da istorioa hori kontatzerako unean. Gero hizkuntza gero eta hobekiago ezagutu, orduan eta edertasun gehiago emango diozu istorio horri, edo alderantziz.








**TOLOSALDEA
GARATZEN**

⇒ ENPRESAK SORTZEN
LAGUNTZEKO ZERBITZUA

⇒ ENPLEGU ZERBITZUAK - LANBIDE

⇒ TURISMOAREN PROMOZIOA
ETA DINAMIZAZIOA

⇒ ESKUALDEKO INDUSTRI LURRA

⇒ ENPRESEI ZERBITZUA

⇒ KONTSUMITZAILEAREN BABESA

⇒ ...

943 65 45 01

www.tolosaldea.net

San Esteban, 20 • 20400 TOLOSA



Ibai Azurmendik eta Iker Sagastibeltzak irabazi egin zuten Burlatako Zugarralde A-ren aurka. N. GARZIA

Nafar Jokoen bigarren itzulia amaitu da jada

Pilota » Aurrerako pilotariak partida guztiak jokatu dituzten arren, asteartean jakinen dute zein sailkatu diren.

NAIARA GARZIA

Nafar Jokoen finalurrekoetarako sailkatzeko bigarren itzulia gaur amaituko den arren, Aurrera Pilota Eskolako pilotariak jokatu beharreko partida guztiak jokatu dituzte, atzo eta herenegun, hain zuzen, 6 etxean eta 3 kanpoan. Asteburu honetan, partida gehienak irabazi dituzte, baina finalurrekoetarako sailkatu diren bikote guztiak zein diren asteartean jakinen dute.

Pakito Sagastibeltza pilota esko-

lako arduradunak txapelketaren balantzea egin du. «Orokorrean balantze baikorra egiten dugu, ezuste batzuk izan ditugun arren. Mementoan genituen asmo batzuk bete dira zenbait kategoriatan, beste kategoria batzuetan, aldiz, ustez gure pentsamendua zen klasifikatuko zirela, baina ez dute bere maila eman».

Honetaz gain, lehenengo eta bigarren itzulian pilotariak antzeko maila eman dutela adierazi du. «Berdintsu aritu dira, lehenengoa maila bajuxeagoa eman zutenak horrela jarraitu dute, baita maila altuagoa erakutsi dutenak ere». Mailari dagokionez, «polita eta parekatua» izan dela dio, «berzikil zenbait kategoriatan. Beste maila batzutan, aldiz, bikote ba-

tzutatik besteetara alde handia ikusi dugu».

Hori bai, txapelketa pribatuaren gertatzen ez den bezala (hauetan beti eskolako pilotari hobereenak aukeratzen dituzte), Nafar Jokoen gauza on bat dutela dio Sagastibeltzak. «Eskolan dauden pilotari guztiak har dezakete parte».

Txapelketa berri bat

Aste honetan federazioan bilera bategin dute. «Nafar Jokoen amaitu ondoren hutsune bat dago ekaina arte eta hutsune hori betetzeko beste txapelketa bat antolatzea erabaki dute. Ziurrenik maila bajuxeagoa izanen da, Herri Artekoarekin kointzidituko baitu, eta honetarako pilotari onenak aukeratu beharko ditugu».



Politikariak kalean, kanpaina egiten

TOLOSA » Herenegun hasi zen ofizialki Espainiako hauteskun deetarako kanpaina, eta atzo Aralarren, Ezker Batuaren eta EAJren kideak kalean ibili ziren. Aralarroek kartelak jarri zituzten eta propaganda banatu zuten. Bertan izan ziren, besteak beste, Rebeka Ubera, Gipuzkoako Batzar-kidea eta Oxel Erostarbe, Aralarren Gipuzkoako koordinatzailea. Ezker Batuak ere propaganda banatzen ibili ziren, besteak beste, Antton Karrera, Gipuzkoako koordinatzailea, Arantxa Gonzalez, Espainiako Senaturako hautagaia, eta Isabel Lopez, Espainiako Kongresurako hautagaia, baita EAJren Joseba Egibar ere. N. GARZIA/A. IMAZ

» ASTEBURUKO EMAITZAK

- **Leitzan.** Aimar Gilek eta Ander Alduntzinek 3, Zugarralde A-k 18.
- **Leitzan.** Ibai Azurmendik eta Iker Sagastibeltzak 18, Zugarralde G-k 2.
- **Leitzan.** Mikel Erasok eta Oinatz Mariezkurrenak 18, Errekak 11.
- **Leitzan.** Mikel Sagastibeltza

Eguesek eta Oier Igartuak 18, Zugarralde A-k 11.

- **Leitzan.** Asier Gilek eta Lenitz Galartzak 18, Beti Onak A-k 7.
- **Leitzan.** Martin Etxeberriak eta Ander Igartuak 19, Esteribar A-k 22.
- **Uharte-Iruñean.** Xabier Jauna-

renak eta Mikel Hernandorenak 15, Uhartea 18 (ostiralean jokatu zuten).

- **Iruñean.** Iñaki Saralegik eta Josu Zabaletak 18, Oberena C-k 15.
- **Zubirin.** Mikel Sagastibeltza Lasartek eta Ander Gartziarenak jokatu zuten, iluntzean.

U Urteurrena

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95

X. urteurrena

**ETXAHUN
GORROTXATEGI ZUAITZ**
gaztea



Maitatu ditugunak ez baitirade sekula galduko; bizi dira gurekian gure bihotzaren barnean.

Etxekoak eta lagunak



GABIRIA
2008ko otsailaren 24a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

G Gutunak**Laister arte aita!!**

Berez zaila izanik seme-alaba batek Aitari azken besarkada, azken muxua ematen diola jakitea, oraingo honetan, beste hainbatetan gertatu moduan, guri ere azken une hau ukatu nahi, zanpatu nahi izan digute.

Izan nahi digute diot, zeren eta inondik ere ez dute lortu, eta honen adibideetako bat, koherentziak betetako, idatzizko hitz ameslarri hauek dira. Ez dute lortu ez, alderantziz Aita, azken besarkada horren berotasun, maistasun, eta harrotasunaren adinarekin eragina sortuko duelako gure arteko elkarlotze bitxi honek, benetazkoa, zintzoa.

Aitortu behar dizut gogorra izan delaghiagore artean egongo ez zarelara berneratzeko, zenbait uneetan krudela ere. Baina bizitza honetan zerbait argi eta garbi erakutsi badidazu, badiguzu, azken hila-beteetan osotasunean guztiontzako ikasgai bihurtuarekin batera, zera da; benetazko iraultzaile batek zolorik ilunenean ere argi printza bilatzea duela xedea, helburua, betebeharra. Eta bai Aita, a zeneolako tinkotasunarekin, adibidearekin, gogorazti diguzu oraingoan ere.

Gogorra izan dela aipatu dizut jada, sarritan lortzen ez badut ere, oraingoan, negar egitea lortu dudalarik. Hori bai ezin izkuta malko garratzak isuri ditudala, ilunak.

Baina guztiaren gainetik Aita, lasai egon zaitezke. Eguzi zailak badirra orokorrean ere, Euskal Herriaren aurkako bortizkeria bete-betean dagoen honetan, tinko eusten diogu eta baita eutsiko ere. Ongi dakizu betio sasi abertzal ho-

riek, demagogiaren maisu izanik, gure herri zahar eta eder hau ukatzen duen estatu espainiarrarekiko betiko morrontzan jarraitzen dutela, erabateko sumisioan. Baina beraiek ere oharzten ari dira azken hamarkada luzeetako borroka latzak, fruituak ematen jarraitzen duela, kontzientziak astintzen...

Jada frankismoaren ondoren eraikitako mozorroak, eragindako azpikeriak, amarruak, bere indarra galtzen ari da, ezinezkoa dutelarik, bortizkerian, ukapenean mantendu eta elikatu duten sistema politiko, judizial eta polizia ezkatuta.

Guk, euskal militanteok garbi izanik ez dugula euskal gizartearen ordezkatzen, baina era berean azpimarratuaz euskal jendartearen zati garena, garbi dugu, horretarako guztia eman behar badugu ere, borroka dugula, eta une honetan bereziki, bide bakarra. Tristura, ezinegona, etsipena ezarri nahi dute ezker abertzalean, nola ez, bide bakarra dutelako ezinezkoa izango duten gure ahultasunean, amarru, iruzur berri bat egiteko Euskal Herriari.

Era berean, argi dugu ere, aitortuaz desatsegina dela, ondorio gogorak dituela, orain arte erakutsi dugun bidetik, arduraz, umiltasunez, bortxa erabiltzea gure herriarengatik, erresistentziarako bortxa, biziraupenerako bortxa. Azken finean, honetan ere desberdinak garrak, apalak, xumeak, beraien aldean. Beraiek estatuaren bortxa, estatutuaren bortxa aukeran nahiago dutela, euskal gizon-emakumeekin benetazko batsunean, gure herriari ukatzen dizkioten oinarrizko eskubideen aldeko borrokan jardun, bortxa mota guz-

tiak desginez, benetazko prozesu baten abian.

Ikusten duzun moduan Aita, betiko lepotik dabilkit burua (azken finean halako zura, halako ezpala ezta?). Beraz gaurko agurtzen hasiko natzaizu, hori bai zin dagizut, borrokaren, konpromezuaren bidetik, gureari eutsiko diogula, adonez beterik. Eta badakit asmo honetan ondoan izango zaitudala, zaitugula, dagoeneko Arano beltz bihurturik, hegaldi ederrak irudikatuz. Bai Aita, eta nere hitza duzu hurrengoan, negar egitean, elkar aurkitzean, askatasun malko alaiak isuriko ditudala, gardenak.

Laister arte Aita. Maite zaitut!!

Haimar Altuna Ijurko. Euskal preso, Lizartza.

«Salbuespen egoera» eta nola aurre/ra egin

Ezker Abertzale politikoaren alde-tik deituta zegoen greba egunazela eta, irakurri ahal izan ditugu LAB sindikatuak HITZari (Tolosalde, Goierri) egin dizkion zenbait adierazpen. Nahiz eta inork ez digun argibiderik eskatu, atrebentzia handiegia ez bada, uste dugu guk ere ba daukagula eskubidea bertan azaltzen diren gezur galantak salatzeke.

Greba deialdiak, soilik LAB eta ESK sindikatuen babesa jaso zuen enpresa mailan. Ez gehiago ez gurtziago. Gure aldetik (nahiz eta ELAren babesik ez izan) ez genuen ohar edo idatzi publikorik atera. Zentzu horretan deialdiaren ahulezia, izatekotan bere baitan zegoen eta ez beste inon. Era berean, emaitzen arrakasta LABi zegokion soil soilik. Eta gauzak bere lekuan jartzeko, LABeko ordezka-

riei zegokien baita ere batzarrak konbokatzea, langileak erakartzea eta mobilizatzea. ELAkoen babes ezak ez luke inor harritu behar. Harritzekoa, LABekoek greba ez babestea edo egun horretan lana egitea, izango litzateke. Baina inolaz ez ELA greba ez babestea

“ELA sindikatuaren jarrera gogor salatu zuen” jartzen du HITZak LABen ahotan

gehituz: “beste alde batetik esker eman zizkien ELAko hainbat afiliatuei”

Ez dakigu oso ondo ulertzen ditugun adierazpen bitxi hauek. Alegia ELA kritikatzeko den bitartean, bere «hainbat» afiliatu zorientzea. Afiliatu zintzoko zuzendaritza gaiztoa duen sindikatoa ote dugu ELA? Afiliatu zintzo eta gaiztoz osatutakoa agian?

Ez da ala ere oso ideia originala. Beraien arteko lehia horrela aritzen dira partidu politiko guztiak (boto emaleak beti dira onak badaezpada)

Eta ELAren lan ildoak gustokoa ez duten politiko eta enpresarietako, maiz entzuten dizkiegu gauza berdintsuak, lejitimatea kendu nahian edo.

Ez dakit zertan dabilen LAB adierazpen maltzur horiek egiten dituenean. Baina elkarren arteko errespetua guztion mesedetarako delakoan gaude ELAkoek.

Hala ere benetan onartezina dena, adierazpen topiko horiek indartzeko, botatzen duten gezur borobila erabiltzea da: «ELA greba batzarrak boikoteatu ditu... afiliatuei parte ez hartzeko aginduz». Ez da lehenengo aldia, gainera. Azken hilabetean egin dituzten beste bi deialdietan berdin zioten. Bai orduan eta bai orain LABekoek barra

barra ari dira gezurretan. Ez da agindurik egon batzarrak boikoteatzeke edo bertan parte ez hartzeko (gauza desberdinak dira, dena den). Alderantziz, gomendatu dugun gauza bakarra hauxe izan da: oztoporik ez jartzea LABek asanblada egin nahi izan ezkerre. Eta horrela egin dugu Gorostidi, Orbinnox, Tolosa Garbia, Calparsoro, ... Zein enpresetan jarri ditugu ba oztoporik asanbladak egiteko? Bartzuen batzuk aipatzeko kapaz? Eta zenbaitetan ez duzue ezer planteatu, nahiz eta kasu batzuetan gehiengoak zuena izan?

Azken finean kontua da LABek bazekiela alde zuzenetik, greba horiez gurela babesteko. Eta zergatik ez genuen babesten ere bai.

Egoera laborala, soziala edo politikoaren diagnostikoa egiteko garaian adostasun zabalak daukagula esango nuke. Ez ordea aurre/ra egiteko estrategia garatzeko garaian. Hain zuzen, arlo politikoan ELA, Lizarra/Garazin jarraitzen du. Soberanismoaren inguruan indar metaketa zabalena lortu zuen estrategian. Han egon ginen elkarrekin, bide luzea egin ondoren, ederki kostata! Geroztik, lan ildo hori baztertu zenuten eta Loiolan egon da LAB bere famili politikoa irarrituz, PSOE konbentzitu nahian edo. Eta orain... non dago orain?

Lizarran gurekin batera erakuntza nazionala aldarrikatu zutenen, Loiolan lau Herrialdeetako estatutuaren proposamena eta orain “independentzia” izan da gehien errepikatutako leloa. Berritortu diogu, gu Lizarra/Garazin jarraitzen dugu. Eta LAB? Non dago orain LAB?

Ramon Irazu. ELAren izenean.

B Blogteka info**Ikastola Lilatoian**

Emakumeen nazioarteko eguna medio, aurten ere Lilatoia emakumeen lasterketa egingo da Donostian martxoaren 2an. Emakumeen artean kirola sustatzea du helburu proba honek. Korrikalariek Alderdi Eder-en hasi eta toki berean amaitu behar dute bost kilometroko ibilbide laua egin ondoren.

Lasterketan banaka parte har daitezke baina talde baten izenean ere. Iaz Ikastolako ikasle eta irakasle batzuk animatu ginen eta oso ondo pasa genuen. Aurten ere animatuta gaude, eta taldea zabaldu nahiko genuke; jada 30 neska elkartu gara. Badakigu ikasle ohi batzuk ere animatuta zaudetela eta beste inork gurekin parte hartu nahi baduzue idazkaritzara deitu eta izena eman.

Laskorain ikastola

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/laskorain>

**Tolargik argindar mozketak egingo ditu bihar**

Tolosa » 08:30etik 11:40era Batxiller Zaldibia kaleko 1. go zenbakian eta Gernikako Arbolaren 8. zenbakian.

ERREDAKZIOA

Tolargik jakitera eman duenaren arabera, bihar hainbat argindar mozketak egingo ditu herriko zenbait guneetan.

Hain zuzen ere, goizeko 08:20etik 11:40era burutuko dituzte aipaturiko mozketak, Batxiller Zaldibia kaleko 1. go zenbakian eta Gernikako Arbolaren 8. zenbakian. Jakitera eman dutenez mozketen helburua «instalakuntzetan hobekuntzak egitea» izango da.



Alex Mujika leitzarra, eskuetan pintxo batzuk dituela, *Reciclaje y alta cocina* argitaratu du. INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Alex Mujika leitzarra ostalaritza munduan mugitu da betidanik, «amarekin ikasi» baitzuen; sukaldaritza ikasketak egin zituen eta duela gutxi 'Reciclaje y alta cocina' izeneko liburua argitaratu du.

Bizi osoa sukaldean

IRENE ARRIZURIETA (BERRIA)

Sukaldean, eltze tartean, hazi eta hezi da Alex Mujika (Leitza, 1963). Ama izan zuen lehen irakaslea, eta harrezkerro hara eta hona dabil sukaldaritzaz dakiena irakasten eta besteek egiten dutenaz ikasten. Bere ogibideaz eta pasioaz, sukaldaritzaz alegia, mintzatu da.

Ostalaritza munduan mugitu da beti, «eroso» dago giro horretan. «Sukaldean amari etxean ikusita hasi nintzen». Gurasoek Leitza zuten Basa-Kabi jatetxe-hotelean sortua, hura izan zuen lehen eskola. Jatetxean lanean jarraitu nahi bazuen sukaldaritzan trebatu beharke zuela esan zion amak. Gomendioa jarraituz, 19 urterekin Luis Irizar sukaldariarekin lan egi-

tera joan zen, Madrilera. Haren aginduetara lau urtez aritu zen, Euskal Etxean eta Hotel Alcalan. Udan berriz gurasoenera, Basa-Kabira, itzultzen zen beharrera. «Nire sukaldearen oinarria nire amarena da. Irakasle nagusia ama izan dut».

Jatetxea, aurki apartamentu-hotela

Egun sukaldaritza aholkularitza enpresa bat du, eta lan hori Basa-Kabi jatetxean izan duenarekin uztartu du orain arte. Badira urte batzuk berak bakarrik hartua zuela jatetxearen ardura, eta zama handiegia dela ikusi du. Jatetxea ixtea erabaki du. Orain apartamentu hotela egiteko baimena noiz iritsi zain dago. Aurki hasiko

» PRINTZAK

■ **Basa-Kabi.** Gurason jatetxea eta hotela izan zen, eta orain berak gidatzen du. Aurki apartamentu hotetel bilakatuko da.

■ **Liburua.** *Reciclaje y alta cocina* (Birziklatzea eta goi sukaldaritza) liburua argitaratu berri du.

dira lanekin. Jatetxe eta taberna txiki bat utziko dute, baina ezkontzarik ez dute gehiago emanen. Izan ere, Leitzako eta inguruko herrietako bikote askok egin dute ezkontza eguneko bazkaria edo afora Basa-Kabin. «Negozio handia da, jende asko behar da. Gurasoak eta anaia ondoan nituenean moldatzen nintzen, baina orain bakarrik ezin dut. Ez da errentagarria».

Bihotzean darama Basa-Kabi, ez alferrik hazi eta bizi izan da han urteetan. Bere asmoa hari nolabait bizirik eustea da. «Bi urte daramatzat proiektuarekin bueltaka, eta aurrera egitea nahi dut. Horregatik erabaki dut apartamentu hotela egitea. Eramateko errazagoa da».

Aholkularitza enpresa, lanez beteriko ogibidea

Aholkularitza enpresarekin ere ez zaio lana falta. Oso lan ezberdinak egiten ditu: hainbat jatetxetako kartetan aldaketak egin, jatetxeak martxan jartzeko bideragarritasun planak prestatu, sukaldaritzak klaseak eman, eta catering-ak prestatu. «Zorionez, nahiko lan badut, hemen nahiz atzerrian». Gainera, sukaldaritzak behar duen gutzia ematen diola dio. «Munduko hainbat toki ezagutzeko aukera eman dit eta ematen dit. Hori oso garrantzitsua da. Hemen bakarrik gelditzen bazara, badirudi hementegoa hoberena dela, baina kanpora joatean ikusten duzu gauza asko daudela eta asko dugula ikasteko. Atzerrian dagoena ikustea eta ikastea oso garrantzitsua da guk kalitateko sukaldaritza egiteko». Baina besteek egiten duten sukaldaritzaz gain, jende berria ezagutzegatik ere maite du bere lanbidea. «Bidaiatzea baino gehiago jende berria ezagutzea gustatzen zait, eta sukaldaritzak aukera hori eskaintzen dit egunero».

Euskal sukaldaritzaz aparte, Kataluniakoa oso ona dela uste du. Eta urrutirago joanez, sukaldaritzak japoniarra eta txinatarra aukeratu ditu. «Oso interesagarriak dira, eta asko ikas daiteke egiten dutenaz».

Sukaldean birziklatuz. Sukaldaritzari buruzko liburuak argitaratzeko beta ere hartzen du Mujikak. Duela gutxi, *Reciclaje y alta cocina* (Birziklatzea eta goi sukaldaritza) liburua argitaratu du. Sukaldean otorduak egin eta gero sobran gelditzen den janariarekin zer egin proposatzen du liburuak. «Imajinario martxan jarri behar da, eta soberakinekin errentagarri den plater bat egitea lortu behar da». Azkenaldian sukaldaritzaren inguruan argitalpen gehiegi kaleratu direla onartu du. Horregatik, «zerbait ezberdina» egiten saiatu dela dio. «Birziklatzearen inguruan ez dago gauza handirik. Jatetxeetan eta etxetan sobran gelditzen diren janariarekin zer egin ez dute jakiten. Liburua oso egokia da jatetxetako sukaldarientzat nahiz etxeko andreentzat». Liburuagatik Gourmand saria eman diote, eta uste du birziklatzearen gaia landu duelako eman diotela.

Etorkizunari buruz ez du asko pentsatzen sukaldariak, «sukaldean jarraitzea» da Mujikaren nahia. «Euskal sukaldaritzaren etorkizuna ziurtatua dago. Goi mailari eustea zaila da, baina Juan Mari Arza-kek eta beste batzuek sortu duten Sukal Lekuk, adibidez, atzetik heldu den belaunaldi bati erakusteko eta lekukoa emateko balio du».

Onddoak aurten lehen aldiz, azokaren berrikuntza nagusia

Azoka » 30 eurotan saldu ziren; barazki zerranda ere oso zabala izan zen, azenario eta porruak azpimarratzekoak.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna animoso hasi zen goizeko lehenengo orduetatik, eta aurrera zihoala, geroz eta gehiago berotu zen.

Eskaintza nobedade garrantzitsu bat ekarri zuen. Onddoak ikusi genituen aurten lehenengo aldiz. 30 eurotan saldu ziren, eta dirudinez hazten joango den zerranda dugu.

Barazki zerranda ere oso zabala izan zen. Neguko produktua; azenario eta porruak aipatzekoak, eta hauekin, azelgak, azak azalareak, txikoria espinaka, eskarola edo eta letxua izan ziren nagusienak. Eguraldiaren eragina ere baikorra izaten ari da arlo honetan, batez ere illarra edo eta babekin.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
ziklamena	2,20	5,00
Salbia	1,00	1,20
Xarbota	4,00	6,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddoa	30,00	-

Fruta		
Errezil sagarra	0,80	80,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak		
Kalabaza	1,50	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00

Gaztak		
Ardigazta	14,00	18,00
Gazta berria	19,00	-

Iragarki laburrak

LANA

■ **Anoeta.** Itzuli tabernak neska euskalduna behar du. 8 edo 4 ordutarako. 635 745 291 edo 943 694313.

SALGAI

■ **Autoa.** Golf GT TDI 110 zaldi. 98 urtekoa. 5.400 euro. Transferentzia eginda. 943 655567.

■ **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa. 669 673649.

BESTELAKOAK

■ **Txakurkume.** Arratoi txakurkumeak oparitzen ditut. 645 706821.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirola

■ **Villabona.** Ibilaldi neurtua Txerminetik hasita Jesusen Bihotza ikastolaren II. Kultur Astearen barruan.

■ **Tolosa.** Eskolarteko Xake Txapelketa jokatu da 09:00ak eta 14:00ak bitartean Kultur Etxean.
■ **Belauntza.** Kultur Etxeak Oargi Mendi Elkartearen laguntzaz Eskiatzera joateko irteera antolatatu du; hilaren 29an iluntzean atera eta martxoaren 1 eta 2an Candanchun eskiatzeko aukera egongo da.

Zinema

■ **Tolosa.** Haurrentzako zinema euskaraz: *Piccolo eta Saxo* filma izango da ikusgai 17:00etan Leidor aretoan.
■ **Tolosa.** *Los crimenes de Oxford* filma izango da ikusgai asteburuan Leidor aretoan: gaur 19:30ean eta bihar (ikuslearen eguna) 20:30ean.
■ **Villabona.** Gurea zinemari bi filma izango dira asteburuan. *Interview*, gaur (19:30) eta bihar (21:30). *Asterix en los Juegos Olímpicos*, gaur (17:00).
■ **Leitza.** Patrice Laconte zuzendaria frantsesaren *Mi mejor amigo* filma emango dute gaur 19:30ean.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Txetxo Gaztañagaren artista tolosarraren marrazki eta margolanak izango dira ikusgai Aranburu Jauregian.

Deialdiak

■ **Zizurkil.** Gutun Lehiaketa naturari buruz 6 urtetik aurrera. Bi lan aurkez daitezke, gehienez bi orrikoak. Gutunak Aitzondoko Zerbitzuen Mankomunitateko bulegora eraman behar dira, Zizurkilgo Muroa kaleko 36 zenbakian.
■ **Ibarra.** 09:30ean Ibarra plaza-tik abiatuta motozaleen goizko irteera izango da. Hamaiketako Arbizun egingo dute.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.
BIHAR
■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



Txitxarra eta inurria oholtza gainean

VILLABONA ■ Markeliñe taldeak *Txitxarra ta inurria* antzezlan eskaini zuen atzo Gurea aretoan. Izen bereko alegia ezagunean oinarrituta idatzi du antzerki taldeak berak gidatua, beste ikuspuntu bat jorratuz eta haur

eta helduentzat zuzenduta. Villabonako Gurea aretoan bildutako jendeak, «ezer ez dugunerako gorde behar dugula» ikasi zuen Markeliñe taldearen antzezlanarekin atzokoan. ASIER IMAZ

A Agurrak



Urte askoan!

Lander Mujika (Asteasu). Bihar 9 urte gure etxeko txikiak. Muxu handi bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Haritz Goenaga Zelaia (Errezil-Belauntza). Gaur 6 urte. Muxuak familia guztiaren partetik.



Urte askoan!

Aiora Beloki (Ibarra). Gaur 7 urte. Zorionak eta ondo pasa eguna Oier eta familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

ingeniaritza
imh

IMH Ingeniaritza Eskola

Badakizu Elgoibarren
Ingeniaritza egin
daitekeela lan eta ikasiz?

Ate irekiak

Zatoz eta ezagutu gaitzazu!!

Martxoak 1, Goizeko 11:00etan

IMH Ingeniaritza Eskola - Azkue aztoa, 1 - 28670 Elgoibar - Tfnua, 943 74 82 64 - ingeniaritza@imh.es
www.imh.es/ingeniaritza-eskola